



Núm. ....


Z. ....

**ETXEKO OLIOA BIRZIKLATZEKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINA**  
**“SOPUERTAK ETXEKO OLIOA BIRZIKLATZEN DU”**

Sopuertako Udalak

**HONELA JAKINARAZTEN DU**

Hondakinen Prebentziorako Europar Astea dela eta, **ostiral honetan, azaroaren 27an, 11:00etatik 14:00etara**, etxeke olioaren birziklapenari buruz **informazioa emateko stand** bat jarriko da olioaren birziklatzeko potoak ematen dituen **Santa Ana autobus-geltoki ondoko** makinaren aldamenean (**Makina berdea**).



Sentsibilizatzeko Kanpainaren helburua herritarrei gonbit egitea da 2011ko maiatzean abian jarri zen etxeke olio erabilia jasotzeko zerbitzua erabil dezaten. Horretarako, standera bertaratzen direnek informazioa jasoko dute funtzionamenduari, olioaren harraskatik behera botatzeak daukan inpaktuari, eta azken urteetako Sopuertako birziklatze-estatistikei buruz. Sariak zozketatuko dira parte-hartzaileen artean.

Olioaren jasotzeko zerbitzuak **1.245 litro** bildu zituen 2014an, eta zifra hori gaintu nahi dugu 2015ean.

**Etxeko olio erabiliaren litro bakar batek 40.000 litro ur kutsatzen ditu, pertsona baten urtebeteko etxeke kontsumoa alegia.**

Kanpainari buruzko argibiderik behar izanez gero, tokiko agenda 21 zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan, 94.650.40.52 telefono-zenbakiaren edo [agendalocal21@enkarterrialde.org](mailto:agendalocal21@enkarterrialde.org) helbide elektronikoaren bidez.

Sopuertan, 2015eko azaroaren 16an.

Sin. Emilio Reina Kalsaca



AYUNTAMIENTO DE SOPUERTA  
SOPUERTAKO UDALA  
Registro General  
Eregistro O. O. O. O. O.

18 NOV 2015

Entrada - Sarrera	Salida - Irteera
Núm.:	Núm.: 359
Zkia.:	Zkia.:

Sopuerta Kontzejuko Udala • Mercaçillo, 48 • 48190 SOPUERTA ( Bizkaia ) • C.I.F.: P-4810000-B • Tel. 94 650 40 52 • Fax 94 650 40 02 • E-mail: cyto@sopuerta.biz